



ZEGAMA KO UDALA

Zenbakia: 06/0320

ALKATETZAREN ERABAKIA

Behin Estatu osorako Alarma Egoera ezartzen duen 463/2020 Errege Dekretua publikatuta, hau aztertu eta bertan adierazitakoaren eraginez eta indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau erabakitzen dut:

Lehena.- Zegamako Udalak, larrialdi epealdia irauten duen bitartean, honako neurriak bideratuko ditu:

- Zegamako Udalarari eragiten dioten baldintzak zein epe administratiboak eten egin dira, alarma egoera indarrean dagoen bitartean (15 egun natural), beraz martxoaren 28ra arte.

Neurri horren arabera, jakinarazten da bertan behera geratzen dira Zegamako Udalaren prozeduren epeak, diru-laguntzei, baimenei eta antzeko beste izapide batzuei dagokienean.

Epeen zenbaketa berriz hasiko da errege dekretu hau edo, hala badagokio, haren luzapenak indarrean jartzen diren unean. Horren berri ohiko bideetatik emango da.

- Parke eta pasealeku nagusien itxiera, hiritarrak euren etxeetan gelditzeko egindako deiarri erantzuteko. Bakarri irten ahal izango da, norberaren lanpostura joateko baldin eta ezinbestekoa bada, edo Errege Dekretuak ezarritako lehen beharretarako jarduerak egiteko.
- Paseoa maskotekin: Jende askok paseoa aprobetxatzen du bere maskotarekin hirian zehar buelta bat emateko. Udaltzaingok gogorarazi digunez, paseoa bizilekutik gertu baino ez da egin behar, animaliek beren beharrak eta ariketa pixka bat egin ahal izan dezaten.
- Hiritarren arreta zerbitzu presentziala bertan behera uztea. Behar diren kudeaketak egiteko, bide telematikoak egongo dira, hau da, www.zegama.eus web ataria eta 943801115 telefonoa.
- Osasun eta segurtasun neurriak bideratu ahal izateko, langileen lan presentziala mugatuko da, txandakako lanak, telelana eta bestelako neurriak bideratuz.
- Garbiketa zerbitzuei buruz (bai udal eraikin edo kaleetako), zentzu horretan emango diren neurrien eta beharren arabera burutuko dira, hasiera batean eta larrialdi epealdia irauten duen bitartean eraikinen garbiketa, gehienak itxiak dauden bitartean, bertan behera geratuz.



ZEGAMA KO UDALA

- Era berean, udal bilerak bertan behera gelditzen dira larrialdi epealdia igaro arte.
- Turismo bulegoa, Ostatua, eta bestelako zerbitzuak itxiko dira.

Bigarrena.-Doakienei ebazpen hau helaraztea, eta ohiko hedabideetatik honen berri ematea.

Zegaman, 2020ko martxoaren 16an.

